Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

393

Martxoak 15, 2021

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Migratzaileen etorreran gorakada
4 Martxoak 8
5 Bakarne Atxukarro
6 Urtebete pandemian
7 Diego San José
8 Kirolak: Bidasoa XXI
9 Kirolak: Esgrima
10 Oiassotik orainaldira
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Krepherria
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?



1921. urtean argitaratutako aldizkariek orain dela 100 urte hiriak bizi zuen errealitatea irudikatzen dute, albiste, kronika edo hiritarrek idatzitako gutunen bitartez. Zehazki, 1921eko martxoaren 20an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkarian "En bien de todos" titulua daraman idatziarekin hasten da, gaueko ordenaren betekizuna orain gobernuko poliziaren esku dagoela azaltzen da, aurretik gauzainen esku zegoena. Jarraian, "Ensayos poéticos" atalean hildako neskato bati zuzendutako olerkiak biltzen dira. Justinianok ideologia ezberdinen inguruko gogoeta plazaratzen du zenbaki honetan. "Del Misisipi al Bidasoa, la alegría de un regreso" testuan elkarrizketa formatuan Californiako bizipenak laburbiltzen ditu Jack-ek.

Kirol kronikan, futbolarekin loturiko hainbat albiste laburbiltzen dira, horien artean, Real Unionen entrenamenduak edo Bartzelonako futbol taldeak Espainiako Txapelketako final-aurrekoan parte hartuko ez duela jakinarazten da. Ostean, martxoaren 13an Irunen San Leandro omentzeko egiten den ospakizunaren inguruan hitz egiten da, urteko egun seinalatu horretan egin ohi diren gauzak gogoratuz. Yole-k El Bidasoa aldizkariko zuzendariari bidalitako gutuna publikatzen da, idazleak aldizkariaren aurreko zenbakietan argitaratu dituen artikuluetatik abiatuta bere izaera eta pentsamenduak gaizki ulertuak izan direla azaltzeko.

Hirugarren orrialdearen hasieran, "Irún por dentro" izenburu azpian tren geltoki inguruko auzoa nola eraiki zen azaltzen du Juan de Uranzuk eta auzoaren hazkundea baldintzatu zuten faktore ezberdinak zerrendatzen ditu. Ondoren, artikulu labur batean Florencio Echevarriaren heriotzaz hitz egiten da, bere ekarpena gogoratuz. "El reporter" izenordearekin sinatzen duen kolaboratzaileak aurreko zenbaki baterako Bienabek idatzitako artikuluari erantzuten dio, zinegotziari bere zereginetan zentratu dadila eskatuz. Azkenik, aldizkaria amaitu aurretik, beti bezala, "Ecos de Sociedad" eta berri laburrak biltzen dituen "Noticias" atalak irakur daitezke.

Argazkiak:

G57689: Genaro Echeandia plazaren inguruan, orduan Merkatuaren plaza zena, eta Colón pasealekuaren hasiera. Bertan Echeandia etxea, Elgorriaga kafetegia, Palace hotela, ... ikusi daitezke. Argazkia 1919 urtearen aurretik atera zen.

G38586: Artalekuko gainetik ateratako argazkia, irudian Pasiotarren elizako kupula, Aduanaren eta Trenbideko Langileen Elkartearen egoitzak ikusten direlarik.

G57839: Santiagoko ontziralekua, mugazainen kuartela eta inguruko eraikinak ikusten direlarik, Hendaiatik ateratako irudi batean. Argazkia 1923. urtearen aurretik atera zen.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Frantziako helmuga zeharkatzeko asmoz Irunera iristen diren migratzaileen jarioa handitu da

Martxoko lehen asteburuan zehar ehun migratzaile inguru iritsi ziren Irunera. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Kontingentzia planaren 2. fasea aktibatu eta migratzaileei ostatu emateko baliabide gehiago egokitu ziren. Instituzioen erantzunaz gainera, Irungo Harrera Sareak Irunera iritsitako migratzaileak artatzeko konpromisoari eutsi dio.

Eusko Jaurlaritzak zabaldutako datuen arabera martxoaren 6tik 7rako gauean 106 iragaitzazko migratzaile artatu ziren Irungo errekurtsoetan. Horixe izan da azkenaldian hirira iritsitako migratzaile kopuru handiena. Irunera iritsitako migratzaileen kopuruaren gorakadaren aurrean, instituzioek momentura arte migratzaileak artatzeko eskainitako baliabideak handitu behar izan dituzte. Horretarako, Irungo Hilanderaseko aterpetxeko ohiko plaza-kopurua areagotu behar izan da, Irungo erromesen aterpetxean beste 30 ohe eta Hondarribiko aterpetxean 12 ohe eskaini direlarik.

Kontingentzia planaren 2. fasea aktibatu eta baliabide gehiago egokitu ostean, martxoaren 7ko gauen 98 migratzailek eman zuten gaua hirian, 104 martxoaren 8ko gauean eta martxoaren 9ko gauean, berriz, 75 migratzailek martxoaren 10eko gauean. Eusko Jaurlaritzatik adierazi denez, "iragaitzazko migratzaileen fluxua ohiko mailetara itzultzen ari da mugan, pixkanaka". Bidasoa eskualdeko zentro ezberdinetan artatutako migratzaileei ura eta jatekoa eskaini zaie, arropa eta maskarekin batera. Hortaz gain, dutxatzeko aukera izan dute eta tenperatura neurtu zaie. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzatik baieztatu denez, egun horietan zehar "ez zen inor kalean gelditu eta Gobernuak martxan zituen errekurtsoak ez ziren osatu".

Harrera duin eta jarraitua

Migratzaileak, Kanariar uharteetatik Iberiar penintsulara sartu ostean, Espainia eta Frantziako estatuen arteko muga zeharkatzeko asmoarekin iristen dira Irunera. Frantziako estatuko mugak itxita daudenez, mugan poliziak burutzen dituen kontrol zorrotzak direla eta, ordea, ezinezkoa zaie migratzaileei muga zeharkatzea. Ondorioz, Irunen muga zeharkatu ezinik gelditzen diren migratzaileen kopuruak gora egin du azken egunetan zehar. Mendigutxiak azaldu duenez, "berriro 2018ko zifrak ikusten ari gara". Izan ere, berriro ere migratzaileak Irunera asteko egun guztietan zehar iristen direla ikusi dute, astelehen batean 20-27 pertsona iristen direlarik, hau da, orain dela 3 urteko kopuruak errepikatuz.

Irungo Harrera Saretik migratzaileen etorreraren aurrean Eusko Jaurlaritzatik martxan jarritako baliabide gehigarrien beharra azpimarratu da. Irungo Harrera Sareko Josune Mendigutxiak gogoratu duenez, migratzaileen kopurua igotzen hasi zenetik hilabete pasa da neurri berezi hauek hartu diren arte. Egunero hirira iristen diren migratzaileen kopuruak handiegiak izan ez arren, migratzaile berri horiek aurretik hirian pilaturikoei batzen zaizkie, muga zeharkatzeko esperoan Irunen zain dauden migratzaileen kopuru totala handituz.

Muga zabaldu ezean, denbora luzez egoerak horrela jarraituko duela uste dute Irungo Harrera saretik. Josune Mendigutxiak ohartarazi duenez, "Kanariar uharteak husten ari dira eta bertan milaka pertsona pilaturik daude". Horrekin batera, muga itxita jarraitzen duen bitartean eta bestelako irtenbiderik topatu ezean, hirira iritsitako migratzaileekin zer gertatuko ote den argitzeko dagoela azaldu du Mendigutxiak. Sareko ordezkarik azaldu duenez, migratzaileen profilean, berriz, aldaketa gutxi egon da, adina apur bat murriztu bada ere, gehienak Malitik datozen gizonezkoak dira. Gehienek Frantziara iristea dute helburua, frantsesa menperatzen dutelako edo senide zein lagunak dauzkatelako bertan.

Irunera iristen direnean Irungo Harrera Sareko kideek migranteei mugaren egoeraren berri ematen diete, muga itxita dagoela azaldu eta haiek lasaitzen saiatzeko. Josune Mendigutxiaren hitzetan "oso urdurituta iristen dira Irunera, asko Kanarietatik atera ezinik 4-5 hilabete eman dituztelako eta hirira antsietate askorekin iristen dira, lehenbailehen muga zeharkatu nahi dutelako".

Hortaz, datozen egun eta asteetan Irungo Harrera Saretik Migratzaileen kopuruak gora egiten jarraituko duela aurreikusten da. Zentzu horretan, ikusteko dago denbora luzez jendea pilatuz gero bestelako neurri-osagarri edo baliabiderik ahalbidetu beharko ote diren. Ezinezkoa da hemendik hilabete batera egoera nolakoa izango den aurreikustea eta egoera horrek Irugno Harrera Sarean kezkak eragiten ditu.

Mugek oztopatutako bidaia

2020ko martxoko maiatzean amaitutako konfinamenduaren ostean, Irungo Harrera Sareak ohiko jarduera berreskuratu zuen, hirira iritsitako migratzaileen kopuruak gora egin edo murriztu arren, San Juan plazatik migratzaileei harrera duina eskaintzen jarraitzeko. Josune Mendigutxia Irungo Harrera Sareko ordezkari gisa azken hilabetean zehar hirira iristen diren migratzaileen kopuruan gorakada nabaritu dutela adierazi du.

Beatriz Artolazabal Berdintasuneko sailburuak adierazi duenez, migrazioaren arazoa Europa osoan gertatzen ari dela. "Egiturazko arazoa da, eta erantzun bateratua eman behar zaio, Euskaditik edo Espainiako Estatutik ez ezik, Europa osotik ere", adierazi zuen sailburuak. Artolazabalek nabarmendu duenez, "erantzun bateratua" behar da, eta koordinazio handiagoa Espainiako Estaturekin etorrera horien inguruan; horrek, zalantzarik gabe, iragaitzazko pertsona horiek arreta hobea jasotzea ekarriko du.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Plaza, balkoi eta teknologia berrien laguntzaz ospatu da 2021eko martxoaren 8a

2020. eta 2021. urteko data seinalatu askorekin gertatu den bezala, 2021eko martxoaren 8a modu ezohikoan ospatu da. Data horren inguruan aurreko urteetan antolatu izan diren mobilizazio handiak eta ekitaldi jendetsuak antolatzea ezinezkoa izan da Covid-19aren zabalpena ekiditeko neurriak betetzeko. Dena dela, ekintzak bestelako moduan antolatuz eta jende pilaketak eta pertsonen arteko distantzia errespetatuz, Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenak ez ziren oharkabean pasa.

Hortaz, urtero bezala, berdintasuna, matxismoaren amaiera edo emakumeen eskubideak goraipatu zituzten mezuak ez ziren falta izan, bide eta modu berezian zabaldu baziren ere. Zentzu horretan, adibidez, Bidasoako M8 Asanblada Feministak urtero moduan manifestazio jendetsurik ez antolatzea erabaki zuen. Horren ordez, hiritarrak etxeetako balkoi zein leihoak objektu moreekin apaintzera animatu zituzten. Hortaz gain, martxoaren 8ko arratsaldeko 19:00etan balkoi eta leihoetara zarata egitera ateratzeko deialdia zabaldu zuten. Hain zuzen ere, egun horretako ekitaldiak antolatzeko bilera ere modu telematikoan egin zen.

M8ko goizean, berriz, astelehenero Txingudiko Pentsionisten Mugimenduak San Juan plazan eguerdiko 12:00 egin ohi duen kontzentrazioan Emakumearen Nazioarteko Egunari aipamen berezia egin zitzaion. Zehazki, emakume eta gizon langileen arteko desberdintasunak aipatuz, pentsioen kasuan genero-arrakala oraindik handiago dela salatu zuten. Honela emakume guztientzako pentsio duinak eskatu zituzten, arrakalarekin amaitu eta behingoz pentsio duin bat lortzeko.

Pentsionisten elkarretaratzea amaitu eta eguerdiko 12:30etan emakume talde batek udal ordezkariek udaletxearen aurrean egindako kontzentraziora batu ziren. Uneoro pertsonen arteko distantziak eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz, Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruko mezu anitzak zabaltzen zituzten kartelak goratu zituzten ekitaldian zehar.

Eguerdiko ekitaldi hori, ordea, ez zen martxoko bigarren astelehenean zehar Irunen antolatutako elkarretaratze bakarra izan. Hain zuzen ere, arratsaldeko 18:00etan Bidasoako Itaia antolakundeak "zapalkuntza mantentzen duen legedi burgesaren aurka eta emakume langileon interesen alde aktiboki jarduteko" elkarretaratzea egin zuten Jose Ramón Amunarriz plazan, epaitegiaren aurrean.

Aldarrikapenak darrai

Irungo Udalak Martxoaren 8aren harira antolatutako egitarauaren barnean, hainbat ekitaldi antolatu ziren Emakumearen Nazioarteko Egunean zein aurreko egunetan, hau da, tailerrak, film emanaldiak, antzerkiak, ... Martxoaren 8a igaro ostean, ordea, badira datozen egunetarako aurreikusita dauden zenbait ekintza. Martxoaren 16an Gaurko Andreak Berdintasunaren Alde elkarteak antolaturik "Mindfulness: Zure burua zaintzen" tailerra eskainiko da Kale Nagusiko 11. zenbakiko 1. solairuan. Tailerraren inguruko informazioa eskuratu edo izena emateko deitu 665 73 53 33 telefono zenbakira edo idatzi gaurkoandreak.irun@gmail.com helbide elektronikora. Martxoaren 20rako Parean elkarteak "Ibilbide historiko kulturala" antolatu du, San Juan plazatik abiatuta ibilaldiaren bitartez irundar emakume ezagunen eta haien ofizioen historiaren berri jakiteko. Ekintzan parte hartzeko info@parean.eus helbidera idatzi. Gainera, martxoaren 6tik apirilaren 3ra arte GazteARTEan Expo ekimenaren barnean "Neskato bat bezala borrokatzea" erakusketa bisitatu ahalko da Martindozenea Gaztelekuan. Azkenik, martxoan zehar Irungo Haurtxokoetan emakume esanguratsuak (berr)ezagutzea eta nabarmentzeko ekintzak burutuko dira.

Udalaren konpromisoa

Martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldiak aurkezterako orduan Miren Echeveste Irungo Udaleko Berdintasuneko ordezkariak azpimarratu zuenez, "berdintasunaren aldeko borrokak ez du etenik, eta alde guztiek, eragile sozialek zein erakundeek, martxoaren 8aren inguruan ekimenak bultzatzen eta antolatzen jarraitzen dugu". Alde horretatik, Echevestek hiriko emakume-elkarte eta udaleko gainerako departamentuen inplikazioa eskertu zuen: "Izan ere, programan, Irungo Udaleko arloek antolatutako proposamen-sorta handi bat sartzen da batez ere. Horrek erakusten du berdintasunak udal osoan duela zeharkako izaera". Echevestek gaineratu zuenez, "berdintasuneko Ordezkaritzak berak sustatutako jarduerek pixka bat harago joan behar dute, eta berdintasunaren balioak eta horiek bizi garen gizartean duten isla sustatu behar dituzte, hirian eztabaida, ahalduntze eta hazkunde feministarako guneak sortuz".

Bakarne Atxukarro, idazle eta kazetaria:

"Niretzat idaztea behar bat da"

Bakarne Atxukarro, Irundarra jaiotzez baina egun Iruñean bizi den kazetari eta idazlea da. "El café de los miércoles" tituluarekin idazleak bere lehen eleberria kaleratu du aspaldian armairuan eta bere barnean gordeak zeukan istorioak aireratuz. Horrela, Atxukarrok azkenaldian kaleratutako liburu eta proiektu ezberdinen inguruan hitz egin du.

Berezia da zuretzat zure liburuak aurkezteko Irunera etortzea?

Bai oso berezia da niretzat, gainera nire lehen nobela delako. Bi urtez tiradera batean gordeta izan ostean, aurten kaleratu da eta asko maitatzen dut.

Orain dela gutxi hiriarekin lotura estua duen "Irun. Historia erraldoia" liburuaren proiektuan parte hartu zenuen, ezta?

Zoritxarrez ni ez naiz Irunen bizi, baina, hemen gauzak egiten ditut eta oso harreman estua dut hemengo jende eta erakunde batzuekin. Horregatik, abenduan "Irun, historia erraldoia" izena duen liburua kaleratu genuen. Oso liburu polita da. Liburua irudi, antzinako argazki eta testu ezberdinez osatuta dago eta testu horietako batzuk nik idatzi nituen. Testuek Ondare elkarteko erraldoien jatorria azaltzen dute eta Oskarbi elkarteko idazleek pertsonai horiekin loturiko kontakizunak idatzi zituzten. Idazle bakoitzak barruan zeukana bere erara atera zuen eta oso istorio bitxiak sortu dira horrela, benetan aberatsa den liburua osatuz. Zehazki, nik hiru testu idatzi nituen. Lehenengoan nire amatxiri omenaldia egin nion, bera Hondarribikoa zen eta opila beti nola ematen zidan kontatzen dut bertan. Bigarrenean nire izebari buruz idatzi nuen, luzaroan berak kantineren jantziak egin baititu eta berak kontatutako bitxikeriak azaltzen saihatu naiz. Azkenik, Bidasoa eskubaloi taldearen inguruko testua idaztea egokitu zitzaidan. Hortaz gain, Oskarbi taldekoek Luis Mariano, erromatarrak, ... pertsonai asko daude.

Orain, ordea, zure lehen nobela kaleratu duzu. Zergatik erabaki duzu zuren lanean aldaketa hau egitea?

Ez da aldaketa bat. Niretzat idaztea behar bat da, idazteko premia daukat beti barrukoa ateratzeko. Kaleratu berri dudan lan hau beste lan batzuekin batera tiradera batean gordeta nuen. Aurreko urtean Erein argitaletxekoekin bilera izan nuen ipuin bilduma bat kaleratzeko asmoz eta bileran haientzat emakumearen inguruko gaiek interes handia zutela azaldu zidaten. Gordeta zegoen istorio bat nuela kontatu nien eta, lana erakutsi eta denbora gutxira eskatu egin zidaten, lan hori gordeta izatea ulertu ezinik. Horregatik esaten dut ez dela aldaketa bat, nik jada gauza asko idatziak dauzkadalako. Beste gauza bat kaleratzea da. Nik jada haurrentzako ipuinak edo helduentzako bestelako gauzak kaleratuak neuzkan, baina, ez nobelarik. Esaterako, Gizalabak liburua biografia laburrez osatuta dago. Beraz, hauxe da nik kaleratutako nire lehen eleberria.

Zergatik erabaki duzu bere aurreko bizimoduarekin apurtu nahi duen emakume batean istorioa kontatzea?

40 urte betetzeak eragin ohi duen krisialdiarekin loturik dagoela esango nuke. Jada liburua irakurtzen hasi diren askok esan didate, kasu askotan liburuko protagonistarekin identifikatuta sentitzen direla. Izan ere, egia baita askotan gure bizitzako uneren batean geldituta eta aurretik zer egin ote dugun galdetzen diogula gure buruari. Behin ekuatorera iritsita benetan gauzak egiten hasteko unea dela ulertzen dugu. Niri ere antzeko zerbait gertatu zitzaidan, 2016. urtea urte latza izan baitzen niretzat. Nire ama gaixotu eta, azkenean, hil zitzaigun, beraz, nik oso gaizki pasatu nuen horregatik eta oso galduta ibili nintzen. Hurrengo urtean, berriz, oso gaixorik ibili nintzen ni eta ospitalean amaitu nuen normalean haurrek hartu ohi duten birus baten ondorioz. Gainera, urte horretan ere arazo asko izan nituen lan arloan. Guzti hori elkartuta denboraldi oso txarra izan zela esan dezaket. Ostean, 2018an lagun batek barruan gordeta nuen guzti hori ateratzeko idatzi behar nuela esan zidan. Hasieran ideia ez zitzaidan gehiegi gustatu eta horretarako gaitasunik ez nuela edo nire lanak ez zuela ezertarako balioko errepikatzen nion nire buruari. Idazten hasi nintzenean buruan neukan istorioa erabat aldatu zen eta liburu hau sortu zen. Barruan nuena ateratzeko modua izan zen eta kajoi batean gorde nuen, nire helburua dagoeneko bete nuela pentsatuta. Lehen aipatutako Erein argitaletxeko bilera horri esker, ordea, orain lana kalean dago.

Kasualitatea da martxoaren 8aren inguruan emakumeen buruhausteak lantzen dituen liburua kaleratzea?

Kasualitatea dela eta ez dela esango nuke. Guztiok dakigun bezala, pandemiak kalte handiak eragin ditu arlo ezberdinetan eta, ondorioz, liburu honen argitalpena atzeratu behar izan genuen. Lana kaleratzeko data berria bilatzen hasi ginenean Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan kaleratzea aproposa izan zitekeela pentsatu genuen eta horregatik erabaki genuen data honetan publikatzea. Hala ere, ez da soilik data honen inguruan irakurri daitekeen lana, liburu guztiz atenporala da eta urte osoan zehar irakurri daiteke. Gainera, irakurketa ez bakarrik emakumeentzat, gizonezkoentzat ere gomendagarria izan daitekeela esango nuke eta liburuaren tituluan "los miércoles" hitza agertu arren, asteko egun guztietan irakurri daiteke.

> **"Lan hau beste lan batzuekin batera tiradera batean gordeta nuen"**

Kazetari senak literaturan guztiz ohikoak ez diren gaiak lantzera bultzatzen zaitu?

Bai, kuriosoa da, nik inoiz ez dudalako horrelako premiarik izan, hau da, inoiz ez ditut emakumeak bilatu, baina, emakumeek ni bilatu nautela esango nuke. Duela bi urte Iruñeko Euskalerria Irratikoekin kolaborazioa hasi nuen eta astero "Gizalabak" izeneko irrati saioa egiten hasi ginen biografia labur batzuk ezagutarazteko asmoarekin, emakume ezberdinen lorpenak zabaltzeko. Hortik abiatuta, joan den urtean "Gizalabak" izeneko liburua kaleratu nuen eta ez dakit zergatik edo nola iritsi naizen emakumeei buruz idaztera, baina, oso garrantzitsu bihurtu dira niretzat. Kazetari gisa esan dezaket gauzak asmatu eta imajinatzeko trebeegia ez naizela, bai, ordea, gertatzen diren gauzak ikusi eta behatzeko. Hortaz, kazetaria izanda baliteke errazagoa izatea istorio horiek ateratzea eta paper batean islatzea.

Zure azken lana aurkezten duzun bitartean jada buruan beste proiekturik duzu?

Bai, baina, zorte txarra ematen du gauzak aurreratzea, beraz, ez dut ezer esango.

Urtebete pandemiak irundarren ohiko bizimodua eten zuenetik

Urtebete igaro da Covid-19ak eragindako pandemiak irundarren bizitzak hankaz gora jarri zituenetik. Izan ere, 2020ko martxoko erdialdean ohiko bizi-erritmoa guztiz eten eta pandemiaren zabalpena ekiditeko neurriak hartzeko beharra ikusi zen. Honela, oraindik birusa guztiz menperatu ez denean, urte bat pasa da pandemia geldiarazteko lehen neurriak hartu zirenetik.

Asko dira urte oso baten laburpena egiteko kontuan hartu beharreko gertakari, erabaki eta faktoreak. Covid-19ak Irunen izandako bilakaera azaltzeko urtebete atzera egin eta 2020ko martxoko erdialdean kokatzea ezinbestekoa da, nahiz eta pandemiaren hedapena hilabete batzuk lehenago hasi zen mundu mailan. Zehazki, martxoaren 13an hartu ziren Irunen pandemiaren zabalpena ekiditeko lehen neurriak, besteak beste, udal instalazio guztien itxiera agindu edo elkarteei jende metaketak saihestea aholkatuz. Martxoaren 14ean, berriz, lehen Covid-19 kasu positiboa.

Martxoaren 15eko gauerdian estatu mailan, berriz, Alarma Egoera indarrean sartu zen. Espainiako Ministro Kontseiluan onartutako dekretuaren arabera, herritarren etxeratzea. Dekretuarekin batera, hiritarren zirkulazio askatasuna mugatzen zuen neurri zerrenda luzea argitaratu zen, jarduera oinarrizko zerbitzuetara mugatzeaz gainera. Hasiera batean Alarma Egoera indarrean sartu eta hurrengo 15 egunetarako ezarri zen, geroago ikusi zenez, luzapen baten atzetik beste bat etorri zen, etxeratzea ia bi hilabetez luzatuz.

Lehen Alarma Egoeraren bilakaera

Etxean igarotako bi hilabete horietan zehar kalera ateratzeko aukerak guztiz mugaturik egon ziren, janaria edo sendagaiak erosi, menpekotasuna duten pertsonak zaindu eta lantegiak itxi ez ziren bi asteetan zehar lanera joateko. Apirilaren amaiera amesgaiztoaren amaiera ikusten zela zirudien, konkretuki, apirilaren 26ean haurrek kalera itzultzeko aukera izan baitzuten. Gainontzeko biztanleek, berriz, maiatzaren 11ra arte itxaron behar izan zuten konfinamendua arintzeko 1. fasea hasi eta kalera itzultzeko.

Pandemia aurreko bizimodua berreskuratzeko fase desberdin horietan Irungo Udalak Irun Aurrera planaren barnean hartutako neurriak ezinbestekoak izan ziren. Ostalaritzaren itxialdiak lagundu eta bertako ostalari, merkatari eta artistak babesteko laguntza ezberdinak eskaini ziren.

Pandemiaren aurreko bizitza berreskuratzeko konfinamenduaren arinketa modu progresiboan egin zen. Hain zuzen ere, lehen fase horren barruan kalera itzultzeko ordutegi zehatzak markatu ziren, irteerak gehienez bi-naka egin zitezen eta jende pilaketak saihesteko. Gainera, hasieran irteerak soilik etxetik kilometro bateko distantzian egin zitezkeen, egunean ordu batez.

Etorkizunerako ospakizunak

Konfinamendua arintzeko fase desberdinetatik igaro eta murriztapen neurriak pixkanaka malgutu ziren, ekainaren 19an Euskadik hirugarren fasea gainditu eta Alarma Egoeratik atera zen arte. Alarma Egoeraren amaieraz gainera, ekaina hilabete berezia izan zen irundarrentzat. Izan ere, Lehen Mundu Gerra eta Gerra Zibilaz geroztik lehengo aldiz ekaina amaieran hiriko kaleak alaitu eta kolore zuri, gorri eta beltzez janzten dituzten San Pedro eta San Martzial jaien ospakizuna bertan behera gelditu zen. 2020an ez zen ez Alarde Tradizional ez Alarde Publikoaren desfilerik izan eta jaien egitaraua osatu ohi duten ekintza ohiko gehienak bertan behera gelditu ziren. Neurri bereziekin jaien barnean aurrera atera ziren ekitaldietako batzuk San Juan zuhaitzaren kokapena edo ekainaren 30eko goizean San Martzial mendian udal korporazioak botoa betetzeko ekitaldiak izan ziren.

San Pedro eta San Martzial jaiez gainera, asko dira 2020. urtean zehar hirian bertan behera gelditu ziren jai edo ospakizun ekitaldiak. Horien artean, irundarrentzat esanahi berezia dute apirilaren 25eko Opila eguna, San Juan bezpera, Irungo auzo desberdinetako jaiak, Euskal Jira, ... Ekitaldi guzti horietan multimedia edukiek presentzia berezia izan zuten, modu ezohikoan bada ere, bideo eta argazkienn bitartez data bereziak oharkabean pasa ez zitezen.

Gabonetatik gaur egun arte

Aurretik aipatutako ospakizun guztiekin gertatu bezala, 2020. urteko Gabonak benetan ezohikoa izan ziren. Urteko azken eta urteberriko lehenengo egun horietan orain arte ezinbestekoak ziren bazkari, afari eta lagun zein familien arteko bilerak bideo-dei eta hurbileko senideek osatutako talde txikietan egindako ospakizunengatik aldatu behar izan ziren. Ondorioz, Santo Tomas eguna, Olentzero eta Errege Magoen bisitarekin eta Eguberrien inguruan hirian antolatu ohi diren ekitaldiak bertan behera gelditu eta horiek formatu telematikoan ospatu ziren.

Ez dago ahaztu beharrik lehenengo udara eta ondoren Gabonak "salbatzeko" neurrien ariketaren ostean, Irunen, Gipuzkoa osoan eta, oro har, estatu osoan Covid-19 kasu positiboen sekulako gorakada eragin zituela. Zehazki, irundarrek Euskadin 14 eguneko 100.000 biztanleko intzidentzia metatua eta pandemiaren bilakaera neurtzen dituen semaforoari begira agurtu zuen 2020. urtea, 2021. urteko lehen hilabeteetan zehar egunero Eusko Jaurlaritzak argitaratzen duen txosten epidemiologikoak ekar ditzakeen berri onen esperoan. Konkretuki, otsailaren 16an Irun eremu gorritik ateratzea lortu zuen eta egun 14 eguneko 100.000 biztanleko intzidentzia metatua hirian 100 azpitik dago, hau da, semaforoak horiz markatutako eremuan.

2021eko egutegian berriro martxoaren 15a ikusi eta urtebete atzera eginda azken 12 hilabeteetan hiria eta irundarren bizimodua noraino aldatu den deskribatzea ia ezinezkoa da. Asko dira azken urtean zehar gertatutakoak eta zaila da gertakari, sentimendu eta jasandako kalte eta galera guzti horiek orrialde bakar batean laburbiltzea. Pandemiaren hasierarekin Irunero aldizkariak uneoro hiritarrak informatzeko konpromisoa hartu zuen eta, urte baten ostean, konpromiso horri tinko eusten dio, inoiz amesgaizto honen benetako amaiera kontatzeko esperantzarekin.

Diego San José gidoilari irundarrak Komedia Telesail Onenaren Feroz saria jaso du

"Feroz saria jasotzeak aspaldian hitz egin ez dudan jende ezagunarekin harremana berreskuratzeko aukera eman dit"

"Berezia izan zen horrelako une kezkagarri eta zalantzagarri batean komedia telesaila estreinatzea"

Diego San Josék komedia telesail onenaren Feroz saria jaso du "Vamos Juan" telesailarengatik. Telesailaren bigarren denboraldia 2020ko martxoaren amaieran estreinatu zen, konfinamendu erdian. Saria jasotzerako orduan gidoigile irundarra eskerrak emateko hitzaldian bere jaioterria gogoratzeko tartea aurkitu zuen, hitzaldiaren amaieran oihartzun berezia izan duten "aupa Irun, gora San Marcial" hitzak ahoskatuz.

Feroz sariaren bitartez zure lana eta esfortzu guztia saritu dela uste duzu?

Bai, oso erraza da sariek garrantzirik ez dutela esatea, baina, noizean behin sariren bat jasotzea beharrezkoa dela uste dut. Honela, babesa sentitzeaz gainera, lana egiterako orduan izandako zalantzak edo gauzak gaizki egiteko beldurra gainditzea lortzen dugulako eta, gutxienez, egun batzuetan zehar galdutako ziurgabetasunak usatuz konfiantza berreskuratzea lortzen dugulako.

Sariak oihartzuna izan du Irunen sari-banaketan zure jaioterriari egin zenion aipamenarengatik?

Feroz saria jasotzerakoan eman nuen hitzaldiak ez dut uste sare sozialetan hainbesteko oihartzuna izan duenik. Bai ordea, sari-banaketaren ostean aspaldia haiekin hitz egiten ez nuen jende ezagun asko nirekin kontaktuan jarri dela nabaritu dut. Horien artean, Irungo Anakako eskolako ikaskideak izan zirenak edo nire auzoa izan zen San Miguel auzoko bizilagunak nirekin harremanetan jarri dira, azken finean, urteren podериoz pertsona askorekin harremana galdu dudala konturatu naiz. Beraz, Feroz saria jasotzeak, beste gauza batzuen artean, aspaldian hitz egin ez nuen jende ezagunarekin harremana berreskuratzeko aukera ematen dit. Horrela, iraganean nire lagunak izan ziren pertsonak egun orraindik nire lorpenak jarraitu eta horiengatik pozten direla egiaztatu ahal izan dut.

Hortaz, Irungo hiriarekin lotura hori mantentzea gustuko duzu?

Bai, izan ere, bereziki ezaguna edo handia ez den Irun bezalako leku batean jaiotzen zarenean, noizbehinka zure hiria gogoratzea pozgarria dela uste dut. Jende askok Irun hitzez ezagutu edo entzuna du, baina, gutxi dira noizbait bertan egon direnak. Adibidez, guztiok Madril bezalako hiriak ezagutzen ditugu eta azalpen gutxi eman behar da horrelako hiri handien inguruan hitz egiteko. Horregatik, besteei Irun ezagutarazteko aukera aprobetxatzeaz gainera, nik neuk nire hiria gogoratzeko modua dela uste dut.

Laster Irundik bisita egiteko asmoa duzu?

Jende askori gertatzen zaion moduan, joan den urteko martxotik etxera itzultzeko gogo asko dauzkat, baina, bidaiak ahal zein beste murrizteko ahalegina egiten ari naiz nire gurasoak babesteko. Gabonetan etxera itzuli nintzen, munduko segurtasun neurri guztiak hartuz, nahiz eta horrelako bidaiek esfortzu eta ardura berezia eskatzen dute. Horregatik, nire gurasoek txertoa jasotzea gustatuko litzaidake, nire bisitek haiek arriskuan jarri ez ditzaten.

"Vamos Juan" pandemia hasieran estreinatutako telesaila izan dela nabaritu duzue?

Ez nuke esan nahi pandemia lagungarria izan zaigunik, pandemiak orokorrean gauza negatiboak direlako. Hala ere, etxean giltzapetuta egon ginen hilabete horietan telesailak, filmak edo fikzioa oso lagungarriak izan ziren etxeko lau paretetatik ateratzeko. Berezia izan zen horrelako une kezkagarri eta zalantzagarri batean komedia telesaila estreinatzea. Nire ustez, barre egiterakoan beldurrak usatzen ditugu, eta une konplexuetan komedia kontsumitzea lagungarria izan daiteke.

Zailtasunen gainetik, sariek kultura ekoizten jarraitzen dela oroitarazten diote gizarteari?

Bai, ezinezkoa da kultur ekoizpena guztiz etetea, kultura gizartearen arima, memoria eta lekukoa baita. Liburu edo dokumentazio historikoaz gainera, kultura denboran atzera egiteko modua izan daiteke. Hortaz, ezinezkoa iruditzen zait kultura guztiz etetea, hau da, gizartean antzerki, film edo bestelakoen ekoizpenarekin amaitzea.

Oraindik gizartean gidoigileen lana behar beste aintzat hartzen ez dela uste duzu?

Pixkanaka irudi horrekin apurtzen ari garela uste dugu. Esaterako, Ingalaterran edo Estatu Batuetan gidoigileen lana gehiago goraipatzen da. Azken finean, gidoigileen lana inoiz ez zuzendari baten lana bezain ezaguna izango. Dena den, horrelako sarien bitartez gidoigileen lana zabaltzeaz gainera, gure ekoizpenak ezagutarazten dira, ordura arte ezagutzen ez zituzten pertsonen belarrietaraino iritsiz. Horrela, jendea orain arte gidoigileei kasu gutxi egiten zitzaigula konturatu da.

Gidoigileen altxorrak ideiak dira. Nola moldatzen zara ideiak falta zaizkizunean?

Gidoigileentzat okerrena egun txar bat izatea da eta, ondorioz, lanerako txarra izango den aste oso batean bihurtzea. Bestetik, gidoigile gisa, egun bereziena benetan ideia onak edo gauzak burutaratzen zaizkizun eguna da, beraz, ideiak falta diren egun horiek kudeatzen ikasi behar dugu. Adibidez, pelikula batek bataz beste ordu eta erdiko iraupena badu, normalean, urte osoko lana behar da. Izan ere, urte oso batean badira ideiarik gabeko momentuak edo azkenean ezertarako balio ez dutenak.

Zure gidoiak idazterako ideiak bilatzerakoan, inoiz Irunen horretarako inspirazioa aurkitu duzu?

Ez, ez zehazki. Azken finean nire iragana besterik ez da. Dena den, gure iragana eta jaioterriak gure izateko modua baldintzatzen dituela uste dut. Hortaz, Irunen bizitako garaik egun nire izateko eta pentsatzeko eran iragana izan zuela esango nuke, horregatik, ez dut Irunen pentsatu behar, ni neu Irun naizelako eta nire behatzetan dagoelako zerbait idazten dudan bakoitzean.

Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?

Borja Cobeagarekin telesail berri bat idazten ari naiz, fikzioan eta komedian oinarrituta dagoena. Telesail hori urte honen amaieran grabatu eta datorren urtean estreinatu beharko litzateke. Hortaz gain, dena ondo badoa, hemendik gutxira joan den urtean idatzitako komediazko film baten grabaketa hasi beharko litzateke eta datorren urtearen hasieran estreinatuko litzateke. Beraz, gauzak horrela, 2022. urtean pare bat proiektu estreinatuko ditudala dirudi.

Ane Saseta, Bidasoa XXI klubeko lehendakaria:

“Bidasoa XXI klubaren jarraipena bermatzea lortu dugula uste dut”

Argazkia: Estudio Gover

Konfinamenduaren ostean, Bidasoa XXI kluba ohiko erritmoa berreskuratzen hasi da. Klubean igerian dabiltzan edo waterpoloa praktikatzen duten kirolariak entrenamendu eta txapelketetara itzuli dira. Ane Saseta Bidasoa XXI-eko lehendakariak klubak bizi duen egoeraren inguruan hitz egin du.

Pandemiaren ostean Bidasoa XXI. klubak erritmoa hartzen hasi da?
Bai, kostatu zaigu, baina, orain dela hilabete bat klubak ohiko erritmoarekin lan egiten hasi dela esan dezakegu. Dena den, talde txikietan entrenatzen jarraitzen dugu eta, ondorioz, entrenamendu gutxiago egiteko aukera dugu. Hala ere, aurretik pasa ditugun guztiak ikusita, berriro normaltasunez lan egiten ari garela esan dezakegu.

Etxean inork gutxik igerilekua duenez, ia ezinezkoa izan zen konfinamenduan entrenamenduei eustea?
Bai, oso konplexua zen. Egoerarengatik guztiz baldintzatuak egon arren, Skype edo Zoom bezalako plataformak erabiliz kirola egiteko taldeak sortzen saiatu ginen. Gure kirola igeri egitea da eta urarekiko kontaktua behar dugu eta konfinamenduan zehar ezinezkoa izan zen.

Erraza izaten ari da klubeko kirolarientzat entrenamendu eta txapelketen erritmoa hartzea?
Kirolarik gogoz itzuli dira eta horrek asko lagundu du. Etxetik atera ezinik ibili ostean, gogo askorekin itzuli dira igerilekura. Entrenatzeko gogo asko daudenean nabaritu egin da, emaitza hobeak lortzen dira eta aurreko errendimendua berreskuratzea errazagoa da. Kiroldegiak itxita jarraitzen zuten bitartean itsasoan igeri egiten hasi ginen, baina, igerilekuak zabaldu zirenean gogo askorekin itzuli ziren denak.

Zein segurtasun protokolo jarraitzen duzue?
Bidasoa XXI klubeko kirolarientzat neurri bereziak hartu ditugu, kiroldegietan hartutako oinarrizko neurriez gainera. Entrenatzaileak taldeko kirolarien tenperatura neurtzen du instalakuntzetara sartu aurretik. Momentuz sei pertsonako taldeetan entrenatzen ari gara, igerilekuko kale bakoitzean hori baita gehieneko pertsona kopurua. Hortaz gain, aldagelak ere talde murriztuetan erabiltzen dira. Neurri dezente hartu ditugu eta orain-goz gauzak ondo atera direla dirudi.

Klubeko kirolari kopurua asko aldatu da?
Izen-emate berri gutxi izan ditugu. Bajak, aldiz, gehiegi izan dira, batez ere, 13-14 urte arteko gazteen artean. Adin horietan ikasketek pisu handiagoa hartzen dute eta kirolarekin loturiko murriztapenak asko aldatu direnez, ikasketei lehentasuna ematea erabaki dute askok.

Martxoa txapelketez beteriko hilabetea izaten ari da?
Nahiko ondo hasi dugu hilabetea. Waterpoloko kirolariak motibatuta daudela dirudi eta aurretik zeukaten maila berreskuratzen hasi dira. Haien kasuan apur bat konplikatuagoa da, izan ere, waterpoloak kirolarien arteko kontaktu zuzena da eta sustoren bat izan dugu beste klubetako kirolariren batek positibo eman ostean, baina, saihestezina da horrelakoak gertatzea. Igerikietan, aldiz, Espainia, Euskal Herriko eta beste mailako txapelketak dauzkagu, beraz, normaltasunera itzultzen ari garela dirudi.

Hortaz gain, zuen instalakuntzetan berriro txapelketak antolatzeko asmoa duzue?
Bai, noski. martxoko bigarren asteburuan txapelketa dugu eta hirugarren astean txikientzako txapelketa izango dugu. Zentzu horretan, Irungo kiroldegietan txapelketak antolatzen jarraitzeko gogo asko dauzkagu.

Kluba Azken Portu eta Artaleku kiroldegien kudeaketaz arduratzen da. Zein da egoera?
Udalarekin bildu, egoera aztertu eta konponbidea bilatu behar izan dugu. Elkarrizketen bitartez akordio batera iristeko gai izango garela dirudi, bientzako onuragarria izango den irtenbide bat topatzeko. Bi kiroldegi kudeatzeak lan eta esfortzu asko eskatzen digu. Bestetik, udalak jarri beharreko diru kopurua handia dela ulertzen dugu, abonatu askok kiroldegiak utzi ostean, udaletxea arduratu behar baita dirua ipintzeaz. Klubak orain arte lortutako dirurik gabe Bidasoa XXI kluba arrisku larrian ikusten genuen, baina, udal ordezkariekin hitz egin ostean, elkarrekin zerbait egin dezakegula dirudi.

Konponbidea ezinbestekoa da klubaren desagerpena ekiditeko?
Bai, agian guk geure maila apur bat jaitsi beharko dugu edo beste zerbait, baina, Bidasoa XXI klubaren jarraipena bermatzea lortu dugula uste dut.

Hirian jende kopuru handia mugitzen duzue?
Bai, entrenatzaile asko dira eta asko dira gurekin igeriketa edo waterpoloa praktikatzen duten hiriko haur eta gazteak, beraz, hiriko familia asko dira. Gainera, historia handiko kluba dela uste dut eta tristea litzateke pandemiaren ondorioz honelako klub bat desagertzea.

Zeintzuk dira Bidasoa XXI klubaren helburuak datozen hilabeteetarako?
Momentuz denboraldia normaltasunez jarraitzea espero dugu. Covid-19aren intzidentzia-tasa eta kasu kopuruaren bilakaerara egokitu behar gara. Kasu kopurua gehiago murriztuz gero, klubeko txikiek txapelketetan parte-hartzeko aukera izango lukete eta, horrela, normaltasun absolutua berreskuratuko genuke. Denboraldia abuztuan amaitzen da eta ordura arte lanean jo eta ke arituko gara dena ondo atera dadila ziurtatzeko.

Gladius taldeak adin guztietako pertsonei esgrima praktikatzeko aukera eskaintzen die

Gladius taldeak Irungo Artalekuko kiroldegiko bazter batean esgrima praktikatzen du. Gladius klubean adin guztietako kirolarientzat lekua dago eta maila desberdinetan lehiatzeko aukera eskaintzen du. Alex Prior Gladius klubeko entrenatzaileak azaldu duenez, kluba duela lau urte sortu zen lau kiderekin eta egun 20 bazkide inguru dauzka.

Gutxik dakite Irunen esgrima talde bat dagoela, ezta?
Orain dela 4 urte hasi ginen esgrima taldearekin eta pixkanaka jendeak ezagutzen ari gaituela ustu dugu, kostata, baina, horretan ari gara.

Nola sortu zen Gladius taldea?
Taldea sortzeko beharra ikusi genuen, bertan ikastaroak antolatu ohi zirelako, baina, ikastaro horietarako sarbidea adinaren arabera mugatuta zegoen. Gure helburua esgrima zabaltzea eta adin guztietako jendeari esgrima ezagutu eta praktikatzeko aukera ematea zen. Kirol nahiko ezezaguna izanda adinaren aldetik ere murrizten bada, gero eta jende gutxiago animatuko da kirol honetan aritzera. Bestetik, taldea osatzeko jende nahikoa genuela ikusita taldea osatzeko pausua ematea erabaki genuen.

Zenbat kiderekin hasi zineten?
Lau pertsona hasi ginen, hau da, talde sortu ahal izateko ezinbestekoak eta orain taldea 16-20 pertsonez osaturik dago.

Pixkanaka geroz eta ezagunagoak zaretela ikusten ari zarete?
Bai, ez da erraza eta are gutxiago egun bizi dugun egoera honekin, baina, pixkanaka aurrera egitea lortzen ari gara.

Zeintzuk dira esgrimaren oinarriak?
Jendeak esgrima pelikula bateko ezena balitz bezala imajinatzen du. Esgriman helburu nagusia gure aurkaria ukitzea da eta hiru modalitate daude: ezpata, floretea eta sablea. Hemen Irunen sablearen modalitatea praktikatzen dugu batez ere. Modalitateen ezberdintasun nagusia uki daitekeen gorputz-atalean dago. Ezpatarekin gorputz osoa ukitu daiteke, floretearekin bularra eta sorbaldak eta sablearekin gerritik gora.

Askok galdetuko dizuete ea esgrima praktikatzeak mina ematen ote duen, ezta?
Bai, hori izan ohi da jendearen kezka nagusia eta ez, oso ondo babestuta gaude jakatxo, maskara eta eskularruekin. Babes-jantzi bereziak dira eta urte guzti hauetan ez dugu inolako arazorik izan.

Erraza da esgrima praktikatzeko materiala lortzea?
Ez, taldeak klubeko kideei esgriman aritzeko material guztia uzten die, nahiz eta jendeak denbora luzez kirol hau praktikatzen duenean haien material propioa erosi ohi duen. Lehen ez zen haien erraza esgrimako materiala saltzen zuten kirol-dendak topatzea, baina, egun Decathlon bezalako dendetan edo internet bidez erraz eskuratu daiteke.

Zein mailako txapelketetan lehiatzen dira taldeko kideak?
Orain arte, batez ere, Euskadi mailan eta azken bi urtetatik ona ere estatu mailan lehiatzen hasi gara, taldeko txikiak barne. Orain mundu mailako txapelketan lehiatzen hasiko gara.

Nolako eragina izan du pandemiak klubaren funtzionamenduan?
Klubeko kirolari guztiak federatuak daudenez, egia esan, ez dugu gehiegi nabaritu pandemiaren eragina. Hala ere, Nafarroa edo Hendaiakoak diren kide batzuk ditugu eta momentuko murriztapen neurrien ondorioz ezinezkoa zaie guregana etortzea. Apurka-apurka egoera normaltasunera itzultzea eta horrela mantentzea lortu nahiko genuke.

Kluba handitzen jarraitzeko leku egokiago bat beharko zenukete?
Bai, hemen ondo gaude, batez ere, jende askok beiratetik ikusten gaituelako. Esgrimako pistak falta zaizkigu, hau da, lurrean markatutako marren bitartez mugatuta daudenak.

Zu zeu Espainiako Selekzioan Esgrima Egokituko sekziorako sailkatu zara, ezta?
Bai, horixe da. Hemendik bi astera Espainiako Txapelketan parte hartuko dut eta, ondoren, Tokiora joateko sailkapen-probekin hasiko gara. Europako Txapelketa Hungarian egingo da eta bi Munduko Kopa, bata Brasilen eta, bestea, Polonian.

Esgrima Egokitua gurpil-aulkian praktikatzen duzue. Zailagoa da horrela?
Baietz esango nuke, zutik zaudenean aurrera edo atzera mugitzeko oinak erabiltzen dituzulako, baina, gurpildun aulkian zaudenean erreflexuak dira garrantzitsuena eta erreakzio-denboran dago gakoa.

Zeintzuk dira Txapelketa horietarako dauzkazun helburuak?
Espainiako Txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake eta Munduko Txapelketak beste gauza bat dira, maila oso altua delako, baina, Europa mailan dominen bat lortu nahiko nuke. Orain arte 20 urte azpiko mailan 2013. urtean Munduko Txapelduna izatea lortu nuen, baina, Senior kategoriak jendeak maila gehiago duela nabari da.

Zer beharko luke Gladius klubak egonkortzeko?
Batez ere, jendea guregana hurbiltzea, esgrima probatzea. Nire ustez, behin probatuz ziurrenik gustuko izango dute eta gurekin geldituko dira. Behin hori lortuta, gainontzekoa bakarrik etorriko da.

Emakumeei dagokienez, zenbat dira klubean?
Gure 20 kideetatik 3 emakumeak dira eta klubera emakume gehiago hurbiltzea gustatuko litzaiguke. Dena den, orokorrean, pixkanaka esgriman emakume gehiago dabiltzala nabari da. Gu talde txikia garenez hori lortzea ere kostatzen ari zaigu, baina, etorkizunean emakume gehiago klubera batzea lortuko dugula uste dut.

EMAKUMEAK ETA OIASSO MUSEOA

Oiasso Museoak 15 urte beteko ditu aurten, eta Irunero egunkariarekin abian jarriko dugun elkarlan honetan, bi ospakizun bateratu nahi ditugu: batetik bere urteurrena eta bestetik martxoaren 8ko emakumeen nazioarteko eguna. Urte hauetan emakumeekiko begirada oso bizia izan du Museoak, hara hor adibide gisa, ahaztezina den Mulieres (2018) erakusketa, edo aurtengo udararako sukaldaritzaren eta transmisioaren inguruan prestatzen ari garen 60 amona erakusketa beste ekimen askoren artean.

Urtero martxoaren 8an emakume esanguratsu bati egiten zaion elkarrizketa argitaratzen dugu. Emakume eragileen ereduak beti dira erakargarriak, eta emakume izatearen inguruko hausnarketari lotuta, haien ahotsa entzutea, beti da interesgarria.

Oiasso Museoaren helburua historia eta arkeologia jaso, ikertu eta partekatzea da. Historiaren parte ere bada emakumeen ikusgarritasunaren garapena, eta hori partekatzea ere gure zeregina da.

Joan den urtean, aktore handi bati egin genion elkarrizketa, arkeologian zaletua dena gainera, eta egun hauetan bere izena gorenean dago, Patria seriearen protagonista izateagatik jaso dituen sariak direla eta. Duela aste batzuk Forqué Saria jaso zuen, handik egun gutxi batzuetara Ane Gabarain eta Elenak berak MiM saria eskuratu zuten Bittori eta Miren beren pertsonaiengatik, eta pasa den astean Feroz Sarietan, berriz ere, Elena Irureta igo zen oholtza gainera aktore onenaren saria jasotzera. Joan den urtean kontatu zuenez, antzerkian egin zuen bere lehen pertsonaia Troyako Helenarena izan zen, Euripidesen Troiarrak lanean, eta muntaia honi esker asko ikasi omen zuen gaur egun oraindik bizirik dagoen giza tragediari buruz. Era berean, gure herriko gatazkak oinarri dituen Patria seriean egindako lan honek sortarazten zion ardurari buruz ere hitz egin zuen, eta pertsonaia hori sortzeko egindako ahaleginaz. Orduan, sariak jasotzean esan bezala, bere lankideak eta seriearen arduraduna den Aitor Gabilondo goratzen zuen.

Urte bete pasa da, Elenari egin genion elkarrizketa hartatik, eta urte zail honen ondoren, erronka berri bat jarri diogu geure buruari, horregatik aurten hainbeste miresten dugun Mary Beard ekarri nahi izan dugu gure orri hauetara: historiagile, ikerlari, irakasle eta idazle ospetsua izateaz gain, Beard andereak emakumeen berdintasunaren alde sutsuki borrokatu du. Ohore handia izan da, bere erantzunak jasotzea, horregatik, Oiasso Museoaren eskutik Irun eta inguruko irakurleekin partekatu nahi ditugu bere hitzak:

OIASSO MUSEOA: Borroka handia egin duzu emakumeek gizarte honetan posizio justua izan dezaten. Zein unetan gaude? Norantz jarraitu behar dugu borrokan?

MARY BEARD: Uste dut egoera askoz hobea dela ni txikia nintzenean baino. Sarritan pentsatzen dut nire ama Erresuma Batuko hauteskunde nazionaletan emakumeek botoa emateko eskubidea izan aurretik jaio zela, eta hil zenerako, lehen ministro emakume bat izan genuen. (Egia da ez zela Margaret Thatcherren zalea, baina poztu egin zen emakume bat ikusteaz 10 Downing Streeten). Beraz, aurrerapena egon da, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Oraindik ez dugu soldata-berdintasunik (legedia gorabehera), eta emakumeen ahotsak oraindik ez dira gizonenak bezala entzuten. Jendea orokorrean ikustea gustatuko litzaidake, emakumeei 'entzutea merezi' duela pentsatuz... Jakina, batzuek pentsatzen dute, eta nik neuk zortea izan dut horretan. Baina aurrerapen gehiago behar dugu.

OIASSO MUSEOA: Askatasunez hitz egiteagatik eta iritzia emateagatik jazarria eta mehatxatua izan da. Zer giza mekanismo, mekanismo sozial, komunikazio-mekanismo, edo... aktibatu beharko genituzke indarkeria sozial hori neutralizatu ahal izateko?

MARY BEARD: Ez dakit berehalako irtenbiderik dagoen. Sare sozialak dira une honetan lekurik txarrenak. Arau orokor bat dut: ez esan inoiz sare sozialetan aurrez aurre pertsona bati esango ez zeniokeenik.

OIASSO MUSEOA: Historian zehar idazle eta sortzaileen mundua ezagutarazi duzu, mundu klasikoko emakumeak, gzuti hauetatik zein emakume nabarmenduko zenuke?

MARY BEARD: Uste dut Margaret Atwoodek aldatu egin duela gizarteak emakumeei oraindik egin liezaiekeenaz pentsatzeko modua. Uste dut, halaber, CHIMAMANDA NGOZI ADICHIEk zoragarri kapsularatu dituela borroka feminista borrokatzeko oraindik dauden arrazoiak.

BAZENEKIEN…

Duela 2.200 urte inguru, 2. Gerra Punikoan erromatar lege batek kolore biziak janzatea, bitxi ugari eramatea, edo hirian barrena libreki mugitzea debekatu zuen. Gerra bukatu arren, legeak indarrean jarraitzen zuen. Emakumeen mobilizazioek baina, LEX OPPIA hau indargabetzea lortu zuten.

BELASKOENEA HH

UDAZKENA IRITSI DA ETA HAUR HEZKUNTZAN KONTURATU GARA .

HOSTOAK BILTZEN, SOROXARTARA JOATEN, PARKERA ATERATZEN, UDAZKENEKO FRUITUEKIN ESKULANAK EGITEN ETA BI URTEKO GELAN GURE LEHENENGO ARTELANA MARGOTZEN OSPATU DUGU. GARAI POLITA BENETAN.

Denbora-pasak

7 hitz: Zuhaitzak



Q	D	N	K	B	P	H	Z	B	I	D	B	P	R
W	P	Y	H	T	J	A	N	V	X	X	S	F	Q
B	T	L	I	Z	A	R	L	K	E	R	T	Z	F
F	K	J	V	J	Z	V	A	M	H	M	X	T	U
Z	Q	N	J	P	V	K	V	R	O	Q	Z	R	F
S	T	C	R	Q	G	E	Y	G	W	N	X	V	S
P	E	W	A	F	O	W	I	L	V	Y	D	R	R
O	Z	F	V	Z	R	F	K	V	K	I	Z	O	Q
E	K	E	X	M	O	Y	H	X	M	S	H	M	E
K	I	F	H	J	S	C	A	X	B	A	A	O	Y
S	V	K	M	I	T	X	Z	D	W	H	R	W	N
R	T	Z	V	D	I	U	R	K	I	A	I	P	A
S	S	W	U	Y	J	S	Q	R	C	T	T	G	J
I	C	J	F	J	R	Q	G	L	V	S	Z	X	X

Lizar, palmondo, ezki, haritza, urkia, gorosti, sahats.

	6			7		5	9	
					2	8		
		5	6		8			
					4	9	3	7
9		6			5		4	
	4				9			2
3	5	4			6	7		
8		7	4		3			
				5				

EUSKARA IRUNEN BARRENA

Maitia nai badezu

Maitia nai badezu
nerekin ezkondu
goizian lendabizi
jaiki bearko dezu
oyetik eta oyetik
oyetik eta oyetik.

Gosaldu eta gero
patrikerarako
eman biarko dirazu
lagun
arterako
arako
onerako
jokurako
zurruterako.

Nerekin bizimodu onik
ez dezu aterako
arako
onerako
jokurako
zurruterako
nerekin bizimodu onik
ez dezu aterako.

Irungo P.S.Mri jasoa (1960-IV-21). 66 urtekoa. Bere aita Bergarakoa zen eta hari ikasi zion. (ElBidasoa, 1960-V-7)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

EL PILAR LH5-LH6

GURE BERTSOAK

Krepherrian Axier Alexander Bastarrikak haur eta helduen bizitzak gozatzeko krepeak saltzen ditu

“Lokalak beirate zabala izatea garrantzitsua iruditzen zitzaidan, jendeak krepeak nola egiten ditudan ikusi dezan”

Hilabete gutxi batzuk pasa dira Axier Alexander Bastarrika gazteak Irungo Iparralde etorbidean negozio berri bat zabaldu zuenetik. “Goxoa egin berria” lelopean, krepe-denda berria dago hiran, bertako osagai eta errezeta landuarekin bezeroak erakartzeko asmoa duena. Axierrek bere kabuz martxan jarritako negozioa da eta argi eta garbi du proiektuaren zabalpenerako eman beharreko hurrengo urratsak zeintzuk diren.

Nola bururatu zitzaizun Irunen honelako negozio bat martxan jartzea?
Egia esan, bat-batean sortutako aukera bat izan zen. Nire aurreko lanetik bota ninduten eta nire neskarekin zer egin nezakeen pentsatzen nenbilen bitartean nire kontu lan egin nahi nuela erabaki nuen, beste batentzat lan egiteko beharrik gabe. Hortaz, ondo egiten ditudan gauzetan pentsatzen hasi nintzen eta krepe-denda bat martxan jartzea erabaki nuen. Izan ere, Irunen oso krepe-denda gutxi daude eta horietan, nire ustez, ez dira krepak egin behar diren moduan egiten.

Nolakoak izan da Krepherriaren ibilbidearen hasierako hilabeteak?
Krepeherria zabaldu eta denbora gutxira dendara jende dezente sartzen zela ikusi nuen. Hasiera batean, eramateko prestatutako kafeak saltzen nituen batez ere, baina, pixkanaka gero eta krepe gehiago saltzen hasi nintzen. Ahoz-aho jendeak nire dendaren inguruan nola hitz egiten zuen ikusi nuen. Orain arte nire bezero gehienak irundarrak direla esan dezaket eta, batzuk, berriz, Hondarribikoak.

Frantzian, adibidez, krepeak kontsumitzeko ohitura zabalduago dago?
Bai, zentzu horretan, pandemiaren ondorioz mugan dauden murriztapenen ondorioz Irunera frantses gutxiago etortzen direla nabaritu dut. Hala ere, Krepherritik jada zenbait frantses igaro dira eta behin baino gehiagotan errepikatu dutela ikusita, gustatu zaiela dirudi.

Negozioaren arrakastarako lokalaren kokapena garrantzitsua izatera ari da?
Bai, lokalaren kokapena lagungarria dela uste dut. Egia esateko, lokalaren ezaugarriengatik erabaki nuen Krepherria bertan zabaltzea, lokalak beirate zabala izatea garrantzitsua iruditzen zitzaidan, jendeak krepeak nola egiten ditudan ikusi dezan. Kokapenean ez nuen hainbeste arreta jarri, beranduago jakin bainuen Frantziako mugatik gertu kokatuta zegoela. Zentzu horretan, zortea izan dut.

Zeintzuk dira Krepherrian eskaintzen dituzun produktuak?
Krepez gainera, “Wafle”-ak ditut, hau da, burbuiladun gofreak dira eta gero eta gehiago saltzen dira horrelakoak. Bestetik, saltxitxa gofreak dauzkat, brotxeta batean gofre masarekin estaliak saltzen diren saltxitxak. Hortaz gain, artisau-opil batzuk dauzkat, naturalak eta egin-berriak, marmelada edo Nutellarekin osatu daitezkeenak.

Osagaiak kalitatezkoak izatea garrantzitsua izango da zuretzat?
Hori da, lokalaren atzealdean sukaldean daukat eta bertan irinarekin, arrautzekin eta bestelako osagaiekin nik neuk egiten dut nire produktuen orea. Gainera, produktuak gertuko ekoizleei erosten saiatzen naiz. Orain, adibidez, Kaiku markako esnekiak erabiltzen ditut.

Jendeak zuzenean krepeak edo bestelakoak nola egiten dituzun ikustea gustuko du?
Bai, batez ere, umeen atentzioa erakartzen du. Erakusleiho aurrean beti krepeak nola egiten ditudan begiratzen duten haurren ilara bat izan ohi dut, lerdea dariela. Oso publizitate ona da niretzat, jendeak argazkiak ateratzen ditu eta asko gustatzen zaie.

Negozioa zabaltzen jarraitzeko asmoa duzu?
Bai, zertan hobetu eta inbertitu nahi dudan nahi argi daukat. Horretarako lehen urratsa diseinatzaile bat kontratatzea izan da, enpresaren irudia, logotipoa eta zenbait diseinu egiteko, markari bizia emateko. Hortaz gain, Irungo YouTuber eta pertsona ezagunekin harremanetan jarri naiz, elkarlanean proiektu batzuk egiteko eta etorkizunean nire negozioa hirian ezagutzera emateko asmoarekin.

Konplikatua da krepe onak egitea?
Egia esan, nahiko erraza da krepeak egitea. Betidanik egin ditut, orduan, oso erraza da niretzat krepak egitea.

Etorkizunean produktu edo zapore berriak eskaintzeko asmorik duzu?
Bai, errezeta hobetzen saiatzeko ahalegin handia egiten ari naiz, izan ere, oinarrian errezeta on bat edukitzea garrantzitsua iruditzen zait. Momentuz, errezetaren aldaera ezberdinak probatzen ari naiz, jendeari gehien gustatzen zaiona topatu arte. Hortaz gain, “Kreptalo” izena duen produktu berri bat izango dut laster, krepea eta taloaren arteko zerbait izango dena eta txistorra edo txingarrarekin dastatu ahal izango dena.

Zeintzuk izango dira Krepherriarekin eman nahiko zenituzkeen hurrengo urratsak?
Diru apur bat aurreztea lortzen dudanean lokala aldatu nahiko nuke, izan ere, diseinatzailearekin lokalaren irudi berria nolakoa izango den prestatu dut, lokalari beste itsura bat emateko. Gainera, arrakastaren arabera, etorkizunean Krepherria beste lekuetara zabaltzea posible izango litzateke.

ola
SAGARDOTEGIA

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Eskuratu Gazte Txartelaren 2021eko pack-a

Gazte-txartelaren Pack 2021 zuretzat prestatu dugu, eta jarduera interesgarri ugari proposatzen dizkizugu bertan: aisialdi, kultura, kirol... abantailak, 2021 osoan astialdiaz goza dezazun gutxiago gastatuta.

Deskargatu App-a zure mobilean !

Ikastaroa: "Adimen emozionala"

Gaur egungo gizartean aritzako eta, orokorrean, gure bizitza ahalik eta egokien kudeatzeko, ezinbestekoa da gure burua ezagutu eta gure emozioak kudeatzen jakitea.

Datak: 2021eko martxoak 24, 25 eta 26
Formatua: Aurrez aurre/on line

Hartzaileak: 18-30 urte bitarteko Gipuzkoako gazteak

Epea: martxoak 19

GAZTEAK

GazteARTEan erakusketa berria

Cristina Juanizek, Instagramen @micrisantemo erabiltzaile izenaz ezaguna dena, "Micrisantemo" izeneko erakusketa prestatu du GazteARTEan Expor programaren barnean.

Erakusketa Martindozenea Gaztelekuan kokatuta dago eta martxoaren 6tik apirilaren 3ra gaztelekuko erabiltzaileek erakusketa bisitatzeko aukera izango dute. Hortaz gain, erakusketa modu birtualean bisitatzeko aukera dago, iGazteren webgunean partekatutako esteka jarraituz.

Erakusketa honetan aurkezten dituen irudiak denboraldi laburrean margotu dituen seriea dira, eta gaur egungo bilduma dira. Gizartean ezarritako estereotipoei modu esplizituan erantzuten dieten ilustrazioak dira: emakumeen gorputzak nolakoak izan behar duten, kapitalismoak gure beharrez egiten duen manipulazioa, justiziaren perbertsioa, gaizki bideratutako gizarte-sareen zentzugabekeriak, ... Bere marrazkiak ideal feminista, kontestatario eta errebindikatzaile batetik abiatzen dira.

Irun Udan

IGazteko webgunean "Irun Udan" ataren barnean, 2021eko udan zehar Irunen egingo diren ekintza ezberdinen inguruko informazioa topatuko duzu.

Esaterako, Solas Jolas programaren jarraipena egin, Betti Gotti elkarteak antolatutako Nerabeen Udalekuen informazioa topatu, Ribagordan (Cuencan) uztailean zehar egingo diren begirale ikastaroen berri izango duzu, Udabizi ekintza eta lan bilatzailea ezagutu eta erabiltzen ikasteko aukera izango duzu.

Hortaz gain, datozen hilabeteetan zehar iGazteko bulegora udarekin loturiko eskaintza eta ekintza guztien inguruko informazioa "Irun Udan" atalean aurkitu ahalko duzu.

Espazio berria Irungo Martindozenea Gaztelekuan!

Irungo Martindozenea Gaztelekuak 15 eta 18 urte bitarte dituzte gazteentzako espazio berria egokitu du. Espazio berri hau Gaztelekuko bigarren solairuan kokatu dago eta ostiraletan erabili ahalko da arratsaldeko 17:00etatik 21:00ak arte.

Espazio berriak billarrean jolastu, dardo partida bat jokatu, mahai jolasetan aritu, zure lagunekin hitz egin sofatan, tailerretan parte hartu,...edo besterik gabe, zure adineko jendearekin arratsaldea goxo pasa eta jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen du. Gainera, tailer eta ekintzak egiteko zuen proposamenak entzuteko gogoz daude Gaztelekuan, espazio berri hau zuekin batera dekoratu eta moldatzeko ere!!!

Zer egin behar da espazio berri hau erabili ahal izateko? Baimen orria beteta ekarri edo WhatsApp bidez (690706471 zenbakira) beteta bidali.

Espazio berriaren erabilerarekin loturiko zalantzak izanez gero, ostiralean zuzenean 17:00etatik aurrera Gaztelekutik pasa zaitezke. Bestela, 690706471 edo 656794372 zenbakira WhatsApp bidez idatzi edo deituz Gaztelekuko arduradunekin hitz egin ahalko duzu.

Martxoak

17

Kontu kontari

Zer: "Sorgina pirulina" ipuinaren kontakizuna Virginia Imazen eskutik.

Non: CBA Udal Liburutegian.

Ordua: 17:30etan.

Sarrera: Doakoa, toki mugatuak.

Izen-ematea: 943505421 telefono-zenbakira deituta.

20

Ibilbide historiko kulturala

Zer: Gaurko Andreak elkarteak antolaturik, ibilaldia Irunen barrena, irundar emakume ezagunen eta berauen ofizioen historiaren berri jakiteko.

Hasiera: San Juan plazan.

Ordua: 11:00etan.

Prezioa: Doan.

Izen-ematea: info@parean.eus

20 eta 21

Opera

Zer: 1943ko abenduaren 24an, Luis Mariano izeneko tenore gazte batek debuta egin zuen Parisko "Palais Chaillot" antzokian, "Don Pasquale" operako Ernestoren rola kantatuz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: Bazkideek 25 euro, bazkide ez direnek 30 euro eta 30 urteko gazteek 5 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia antzokiaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Iraupena: 140 minutu.

24

Hitzaldia

Zer: "Oiasso a la carta" ekimen berrian Twitter, Instagram eta Facebook sare sozialetako erabiltzaileek museoak proposatutako Antzinaroko Historiari buruzko lau gaien artean bozkatu eta bozka gehien jasotako gaiak ordubeteko doaneko hitzaldi batean garatuko du Jokin Lanz Betelu doktoreak.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

25

Kontaiguzu dakizuna

Zer: Oiasso Museoak pertsona ezezagunei bidai, historia, arkeologia, literaturari buruz etab. haien ezagupenak eta esperientziak partekatzeko topaketak antolatzen ditu.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00etan.

Parte-hartzeko: actividades.oiasso@irun.org emailera idatzi edo 943639353 telefonora deitu.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

Oharra: Topaketa bakoitzean bi pertsona parte hartuko dute bakoitzak 20 minutuko mintzaldiekin.

27

Antzerkia

Zer: "Botadun Katua" ipuin klasikoaren moldaketa Glu Glu Produkzioak taldearen eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrera: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia antzokiaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Denbora-pasen emaitzak

Q	D	N	K	B	P	H	Z	B
W	P	Y	H	T	J	A	N	V
B	T	L	I	Z	A	R	L	K
F	K	J	V	J	Z	V	A	M
Z	O	N	J	P	V	K	V	R
S	T	C	R	Q	G	E	Y	G
P	E	W	A	F	O	W	I	L
O	Z	F	V	Z	R	F	K	V
E	K	E	X	M	O	Y	H	X
K	I	F	H	J	S	C	A	X
S	V	K	M	I	T	X	Z	D
R	T	Z	V	D	I	U	R	K
S	S	W	U	Y	J	S	Q	R
I	C	J	F	J	R	Q	G	L

I	B	P	R	I	D	B	P	R
A	N	V	X	X	S	F	Q	W
R	L	K	E	R	T	Z	F	B
M	H	M	X	T	U	F	K	J
O	Q	Z	R	F	Z	O	N	J
N	X	V	S	P	V	K	V	R
D	R	R	O	Q	G	E	Y	G
O	Q	Z	F	V	Z	R	F	K
S	H	M	E	K	E	X	M	O
A	A	O	Y	K	I	F	H	J
H	R	W	N	S	V	K	M	I
I	A	I	P	A	R	T	Z	V
T	G	J	I	C	J	F	J	R

2	6	8	3	7	1	5	9	4
1	3	9	5	4	2	8	7	6
4	7	5	6	9	8	3	2	1
5	8	1	2	6	4	9	3	7
9	2	6	7	3	5	1	4	8
7	4	3	1	8	9	6	5	2
3	5	4	8	2	6	7	1	9
8	9	7	4	1	3	2	6	5
6	1	2	9	5	7	4	8	3

Jaunartzeak 2021

ERREPORTAJEA+ ALBUMA

155€ -tik aurrera

Argazkilariak
Letxunborro hiribidea 100,2.
20305 Irun (gipuzkoa)
943 840 113 - 647 930 484
hola@fotogoverbodas.com
www.fotogoverbodas.com

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™